



EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA  
INGURUMEN SAILA

Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetza  
Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE DESARROLLO ECONOMICO  
SOSTENIBILIDAD Y MEDIO AMBIENTE

Viceconsejería de Sostenibilidad Ambiental  
Dirección de Calidad Ambiental y Economía Circular

Ebazpena, 2021eko abuztuaren 2koa, Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren zuzendariarena, zeinaren bidez formulatzen baita Bilboko metropoli-trenaren 4. linearen eta hegoaldeko zonaren ingurumen-inpaktuaren azterketaren irismeneko dokumentua.

## AURREKARIAK

2021eko maiatzaren 28an, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saileko Garraio Azpiegituren Zuzendaritzak eskaera egin zion ingurumen-organoari, Bilboko metropoli-trenaren 4. linearen eta hegoaldeko zonaren informazio-azterketaren ingurumen-inpaktuaren azterketaren irismeneko dokumentua egiteko, Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legean ezarritakoarekin bat etorritz.

Ingurumen-organoak kontsulta-izapidea egin zuen, halaxe zehazten baita abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 34.3 artikuluan. Horren emaitza espedientean dago jasota. Era berean, Garraio Azpiegituren Zuzendaritzari jakinarazi zitzaion izapide-prozesuaren hasiera.

Halaber, espedientean jasota dagoen dokumentazioa eskuragarri jarri zen Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren webgunean, horretan interesa zuen orok aukera izan zezan ingurumen-arloan egoki iritzitako oharrak egiteko.

Jasotako txostenak aztertuta, egiaztatu zen ingurumen-organoak bazituela behar beste judizio-elementu ingurumen-inpaktuari buruzko azterketaren irismeneko dokumentua egiteko, abenduaren 9ko 21/2013 Legeak 34.5 artikuluan dioenaren arabera.

## ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 1. artikuluan ezarritakoaren arabera, ingurumenean ondorio esanguratsuak izan ditzaketen plan, programa eta proiektuen ingurumen-ebaluazioa arautuko duten oinarriak ezartzea da helburua; era horretan, ingurumenaren babes maila handia bermatuko da, garapen jasangarria sustatzeko.

Euskal Herriko Ingurugiroa Babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorraren I.B eranskineko 1.2 epigrafean xedatutakoaren arabera, ingurumen-inpaktuaren ebaluazio arrunta egingo zaie hauei: «Trenbideak, garraio-eraz aldatzeko instalazioak eta garraio-era desberdinetarako terminalak eraikitzea. Tranbiak, airetiko eta lurpeko metroak, zintzilikako lineak edo antzeko lineak, batik bat edo nagusiki bidaiariak garraiatzeko balio dutenak».

Otsailaren 27ko 3/1998 Legean ingurumen-inpaktuaren banakako ebaluazioaren prozedura arautzen da, eta I. Eranskineko B) apartatuan zerrendatutako proiektuei ezar dakieke hori, Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan garatzen direnean plan horiek.

Bestalde, aipatu beharra dago baliokidetzat har daitezkeela otsailaren 27ko 3/1998 Legeak arautzen duen ingurumen-inpaktuaren banakako ebaluazio-prozedura eta Ingurumen-ebaluazioari buruzko Legearen (abenduaren 9ko 21/2013 Legea) 33. artikuluan eta hurrengoetan jasota dagoen ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa egiteko prozedura arrunta.

Donostia kalea 1 - 01010 Gasteiz

Orrialdea: 1/14



Abenduaren 9ko 21/2013 Lege horren 34. artikuluan xedatutakoaren arabera, ingurumen-inpaktuaren ebaluazio-prozedura arrunta hasi aurretik, proiektuaren sustatzaileak ingurumen-organoari eskatu ahal izango dio, organo substantiboaren bidez, ingurumen-inpaktuaren azterketaren irismeneko dokumentua egiteko. Horretarako, sustatzaileak organo substantiboari aurkeztuko dio ingurumen-inpaktuaren azterketaren irismena zehazteko eskaera, proiektuaren hasierako dokumentuarekin batera. Organo substantiboak, aurkeztutako dokumentazioaren egokitasuna egiaztatu ondoren, ingurumen-organoari igorriko dio, ingurumen-inpaktuaren azterketaren irismeneko dokumentua egin dezan, eragindako administrazio publikoei eta pertsona interesdunei kontsulta egin ondoren.

Azkenik, ingurumen-inpaktuari buruzko azterketaren irismena zehazteko, abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 35. artikuluan eta VI. Eranskinean nahiz otsailaren 27ko 3/1998 Legearen 45. artikuluan jasotako eskakizunak hartu dira kontuan; izan ere, erreferentziazko proiektua bi araudi horien aplikazio-eremuan sartzen da.

Orain arte ezarritakoari jarraikiz, espedienteko txostenak aztertu dira eta honako hauek guztiak ikusi dira: 21/2013 Legea, abenduaren 9koa, ingurumen-ebaluazioari buruzkoa; 3/1998 Lege Orokorra, otsailaren 27koa, Euskal Herriko Ingurugiroa Babestekoa; 68/2021 Dekretua, otsailaren 23koa, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duena; 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena; eta 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena; eta aplikatzekoa den gainerako araudia. Horiek horrela, bada, honako hau

#### EBAZTEN DUT:

Lehenengoa. – Bilboko metropoli-trenaren 4. linearen eta hegoaldeko zonaren informazio-azterketaren ingurumen-inpaktuaren azterketaren irismeneko dokumentua egitea, ingurumen-ondoreetarako soilik, honako baldintza hauetan:

#### 1. Proiektuaren ingurumen-ebaluazioaren alderdi garrantzitsuak:

##### Proiektuaren xedea eta deskribapena

Proiektuaren xede den trenbide-azpiegitura berriak garraio publiko jasangarriko irtenbide bat eman nahi du, Errekalde eta Irala auzoak eta, oro har, Bilboko hegoaldeko zona Bilboko metropoli-eremuan dagoen garraio-azpiegitura osoarekin eta, bereziki, hiriaren erdialdearekin eta/edo ahalmen handiko garraio publikoko azpiegitura eta moduekin lotzeko, horiek erabiltzen baitira mugikortasunerako arteria nagusi gisa eta beste ingurune batzuekin lotzen baitira. Horretarako, ahal den neurrian, lehendik dauden azpiegiturak aprobetxatu nahi dira, hiriko garraio-eredu intermodalean integratuz.

Trenbide berriaren trazadurarako, bi korridore alternatibo proposatzen dira, 0 aukeraz edo esku-hartzerik ez egiteaz gain. Proposatutako bi irtenbideek jatorri-puntu bera dute, FEVE aldiriko linea, eta amaiera-puntu bera, AHTaren Abandoko geltoki berria. Bi kasuetan, guztiz lurpean dauden zatiak dira, eta geltokiak edo geralekuak dituzte Errekalde eta Irala auzoetan.

- 0 aukera: Errekalde eta Irala auzoetan trenbide-garraio publikoko sistemarik ez ezartzea.

Aukera horrek ez luke utziko Errekalde eta Irala auzoetatik Bilboko metropoli-trenbidearen sarera sartzen, eta ez luke lagunduko auzo horietako garraiobide nagusiak ibilgailu motordunak (publikoak edo pribatuak) izatearekin lotutako arazoak konpontzen: gas kutsagarrien emisioa, zarata, herritarrei eragozpenak...

- A aukera: egungo FEVE linearen ordezko trazadura bat egitea planteatzen du, Errekalde eta Irala auzoetatik joango litzatekeena, bi auzoetan geltokiak izango litzatekeena, erabat lurpean egongo litzatekeena eta linearen amaiera Abandoko geltoki berrian edukiko lukeena.
- B aukera: bi korridore independente planteatzen ditu, egungo Ametzolako geltokian hasita eta Errekalde eta Irala auzoetan amaituta, hurrenez hurren. Korridore horietan trenbide-trazadura bana ezarriko litzateke, erabat lurpean, eta auzo horietako bizilagunak Ametzolako geltokira hurbilduko litzateke, eta horrek aukera emango lieke trukaketa modalerako, bai FEVEko lineekin bai RENFEkoekin. Geltokiak aurreikusten dira Errekalde eta Irala auzoetan.

### Eremuaren ezaugarriak

Adierazi bezala, proiektuaren helburua da trenbide-garraio publikoa Bilboko hegoaldeko metropoli-zonara zabaltzea, eta, bereziki, Errekalde eta Irala auzoetara. Hala, proiektuaren eremuaren ezaugarria da bizitegi-eremu hiritarra dela, biztanle asko dituen, eta ez duela elementu natural garrantzitsurik, parke eta arboladun lorategietara bideratutako gainazal batzuetatik harago eta A aukeraren trazadura hartzen duen korridorearen hasieran, A-8 autobidearen hegoaldean, larre-, baratze- eta zuhaitz-zona sakabanatu batetik harago. Hauek dira eragindako ingurunearen ezaugarri eta baldintzatzaile esanguratsuenak:

- Erreferentziazko eremuan, ez da topatu ez naturagune babesturik, ez Batasunaren intereseko habitatik, ez lurrazaleko ur-ibilgurik, ez hezegunerik. Eremu horretan ez da identifikatu interes geologikoko gune edo ingururik. Ingurune hurbileko kontsulten izapidean emandako informazioaren arabera, ur-gune bat identifikatu da: «Leche Ona».
- Ingurumen-arriskuei dagokienez, adierazi behar da eremuaren oinarri diren material litologikoak lutita (limolita) karedunak direla gehienbat, tarte hareatsuekin; puntualki, kareharri urgoniar masiboak ageri dira, edo banku metrikoetan, errudistekin eta koralekin; bai eta ibai-jatorriko deposituak ere (ibai-terrazak), eta biltegi antropogeno batzuk, eremu osoan antzina gauzatutako jarduera antropiko handiaren ondorioz. Material horiek determinatzen dute proiektuaren eremuaren iragazkortasuna txikia edo oso txikia izatea eremuaren zatirik handiengan, A trazaduraren aukerak duen korridorean urrakortasun ertaina duten kokagune batzuetan izan ezik. Arrisku geoteknikoak ere aipagarriak dira, hainbat euskarri-kondizioak eragindako asentu diferentzialen ondoriozkoak, «horizonte berean material kohesibo eta granularren banaketa irregularra delako» (batez ere, depositu alubialetan). Ez dago jasota interes geologikoko punturik dagoenik proiektuaren eremuan.
- Lurzoru kutsatuei dagokienez, azterketa-eremua osatzen duten korridore alternatiboak bat datoz «Lurzorua kutsa dezaketen jarduerak edo instalazioak izan dituzten edo dituzten lurzoruen inbentarioa» dokumentuan sartuta dauden lurzati kopuru esanguratsu batekin. Oro har, azalera txikiko lurzatiak dira, eta industria-jarduera izan dute.

Trenbide-linea berria, bi aukeretan, lur azpian trazatzea planteatzen da, baina proiektuak lurrazaleko jarduketa batzuk ekarriko ditu berekin (Errekaldeko eta Iralako geltokiak, lurpeko obretarako eraso-arrapalak), eta, beraz, ezin da baztertu inbentarioan bildutako lurzatiei eragitea; hori guztia zehatz-mehatz aztertu beharko da jarduketak definitzeko fase zehatzetan.

- Proiektuaren eremua ez dator bat uholde-arriskuak eragindako zonekin, EAEko Uholde Arriskuen eta Uholdeen Mapetan aintzat hartutako ezein errepikatze-denborari dagokienez. Hala ere, kontuan hartu behar dira trazaduran zehar igarotzen diren lurpeko ur-kanalizazioen ondoriozko uholde-arriskuak (Elgera, Eskurtze eta beste erreka batzuei lotutakoak).

- Planaren eremuko paisaia erabat hiritarra da, hirigune finkatu eta jendeztatu bati dagokiona, eta «Bilbo» ikuseremuan txertatuta dago. Paisaia hori «jabari antropogenoko hiri-paisaia» motakoa da, «oso arrunta» kalifikazioarekin. Katalogatu gabeko ikuseremua da, EAEko Paisaia Berezien eta Apartekoen Katalogoaren arabera (Eusko Jaurlaritza, 2005). Hala ere, ondare- eta kultura-elementu interesgarriak egoteak kontserbatzeko moduko elementuak dituen hiri-multzo bat eratzen du.
- Kultura-ondarea: Ondare arkeologikoko elementu bat identifikatu da A aukeraren trazatik gertu: Urizar Dorrea ustezko zona arkeologikoa. Bi aukeren trazadura bat dator ondare arkitektonikoaren hainbat elementurekin, horietako batek babes ertaina du (A aukera) eta gainerakoek, babes lokala. Gainera, A aukeraren trazak bat egiten du Donejakue bideko pasabide txiki batekin, Zabalburu plazaren parean. A aukerak eragin diezaiekeen elementu garrantzitsuenak Harino Panaderaren eraikina (inbentariagarria - babes ertaineko proposamena) eta Urizar Dorreko ustezko zona arkeologikoa izango lirateke. B aukerak, berriz, potentzialki ez du eraginik egun babesa duen ezein eraikinetan.

### Aurreikusitako inpaktuak

*A priori*, espero daitezkeen inpaktu nagusiak obra-fasean gertatuko dira, eta hauek nabarmenduko dira: lur-mugimenduekin eta makineriaren joan-etorriekin lotutakoak, hondeaketa-soberakinen eta hondakinen sorrera, eta, hala badagokio, kutsatuta egon daitezkeen lurzoruen kudeaketa. Proiektua gauzatzek berekin ekar dezake, inoizka bada ere, hiriko zuhaitz batzuk kentzea.

Ildo horretan, nabarmendu behar da etorkizuneko trenbidearen trazadurak hiri-ingurune bat zeharkatzen duela, biztanle asko dituen, eta, beraz, aipatutako ekintzek eragin ditzaketen inpaktu esanguratsuenak, *a priori*, zaratari, bibrazioei eta, oro har, obra-zonetatik hurbil dauden biztanleei sor dakizkiekeen eragozpenei lotutakoak izango direla; sentsibilitate bereziko zonak izango dira, besteak beste, honako hauek: biztanleria kaltebera kontzentra daitekeen lekuak, hala nola ikastetxeak eta haur-eskolak (haur-biztanleria), adinekoen egoitzak, eguneko zentroak, osasun-zentroak eta abar. Era berean, trazaduraren (lurpekoa) ezaugarriak direla eta, lurpeko ur-jarioari eragin diezaioke, eta uholde-arazoak gerta daitezke obretan, trenbidearen trazaduraren azpitik doazen ur kanalizatuei eragiteagatik.

Ustiapen-fasean, kontuan hartu beharko dira, batez ere, zarata, bibrazioak eta biztanleei eragindako bestelako eragozpenak.

## 2. Ingurumen-inpaktuari buruzko azterketaren zabalera, xehetasun maila eta zehaztasun maila:

Ingurumen-inpaktuaren ebaluazioari buruzko araudiaren arabera, ingurumen-inpaktuaren azterketak bete egin beharko ditu, gutxieneko edukiei eta egiturari dagokienez, ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legeak 35. artikuluan eta VI. eranskinean xedatzen dituenak.

Aurrekoarekin bat etorriz, garatzen diren apartatuek eskema metodologiko honi erantzun behar diote:

1. Proiektuaren deskribapen orokorra egitea, eta denboren joanean lurzoruaren eta bestelako natura-baliabideen erabilera izango duen eraginari buruzko aurreikuspena egitea. Materiaren edo energiaren isuri, emisio eta hondakin motak eta kopuruak balioestea.

2. Aztertutako aukera nagusiak azaltzea, zero aukera barnean hartuta (proiekturik ez egitea, alegia), eta hartutako irtenbidearen alde egiteko arrazoi nagusiak justifikatzea, proiektuaren ingurumen-ondorioak kontuan hartuta.
3. Ingurumen-inbentarioa eta interakzio ekologiko edo ingurumen-interakzio garrantzitsuenak deskribatzea.
4. Inpaktua identifikatzea, kuantifikatzea eta neurtzea: ebaluatuko da ea zer-nolako eragina izan dezakeen proiektuak, zuzenean nahiz zeharka, biztanlerian, giza osasunean, floran, faunan, biodibertsitatean, geodibertsitatean, lurzoruan, zorupean, airean, uretan, faktore klimatikoetan, klima-aldaketan, paisaian eta ondasun materialetan (ondare historiko-artistikoa eta arkeologikoa barne), ingurumen-efektuak kontuan hartuta. Halaber, arreta jarriko zaio faktore guztien arteko interakzioari, proiektua gauzatu, ustiatu eta, hala badagokio, eraitsi edo bertan behera uzteko fase guztietan.
5. Proiektuaren kaltegarritasuna neurtzea. Proiektuaren kaltegarritasunaren ondorioz ingurumenean eragingo dituen ondorio kaltegarri nagusiak zehaztea, istripu larriak edo/eta hondamendi handiak gertatzeko arriskua dela eta.
6. Ingurumenerako ondorio kaltegarriak prebenitu, zuzendu, eta, hala badagokio, konpentsatzeko aurreikusi diren neurriak zehaztea.
7. Ingurumena zaintzeko programa azaltzea.
8. Azterlanaren laburpena egitea eta ondorioak azaltzea, erraz ulertzeko moduan. Beharrezkoa bada, azterketa egitean izandako zailtasun tekniko edo informatiboen berri emango da.

Oro har, abenduaren 9ko 21/2013 Legearen VI. eranskinean garatzen da zein diren ingurumen-inpaktuari buruzko azterketa garatzeko baldintzak.

Proposatzen diren jarduketan eta eragin dakioken ingurumenaren ezaugarriak direla-eta, eta egindako kontsulten emaitzak ikusita, ingurumen-inpaktuaren azterketak aipatutako apartatu horiek garatu beharko ditu, ondoren adierazitako zabalatasunarekin eta xehetasun mailarekin.

### 2.1. Proiektuaren eta proiektuko ekintzen deskribapena

Ingurumen-inpaktuaren ebaluazio-prozedura informazio-azterlan batean oinarrituta hasi bada ere, eta haren hasierako dokumentuak trazadura-aukerak eta etorkizuneko geltokiak definituko zaizkion korridorea deskribatzen eta aztertzen badu ere, ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa dokumentu batean oinarrituta egin beharko da. Dokumentu horretan, xehetasunez definituko dira trazadura-aukerak, proposatutako geltokien eta sarbideen kokapen zehatzak, bai eta azpiegitura horri lotutako instalazio lagungarrienak ere, betiere proiektua gauzatzeak ingurumenean eragin ditzakeen ondorioak zenbatesteko eta hautemandako ingurumen-inpaktuak murriztu, ezabatu edo modu eraginkorren konpentsatuko direla bermatuko duten prebentzio- eta zuzenketa-neurriak diseinatzeko adinako xehetasun mailarekin.

Horrenbestez, ingurumen-inpaktuaren azterketak xehetasun maila nahikoa duen proiektuaren deskribapen bat izan behar du barne, bai eta denborarekin aurreikusi daitezkeen beharren azalpen bat, lurzoruaren eta bestelako baliabide naturalen erabilerari dagokionez. Halaber, kalkulatu behar du jardueren ondorioz sortuko diren materia- edo energia-hondakin, jario eta emisioen mota eta kopurua, eta, zehazki, inguruneko ingurumen-kondizioetan eragin garrantzitsuak izan ditzaketen ekintzak identifikatu behar ditu azterketa xehatu baten bitartez, gauzatze-fasea eta funtzionamendu-fasea aintzat hartuta.

Ingurumen-eraginen bat izan dezaketen proiektuko ekintza guztiak identifikatu behar dira, neurri babesgarri eta zuzentzaile egokienak hartzen direla bermatzeko helburuarekin.

Saihestu eta zuzendu nahi diren eraginak proiektuan planteatutako jardueratik bertatik nahiz berezkoak zaizkion jarduera osagarri guztietatik etor daitezke (obra-sarbideak, soberakinen kokapena, instalazio lagungarriak dauden lekua eta abar). Ildo horretan, instalazio osagarrien kokaleku gisa baztertu behar diren zonak proposatu ahal izango dira, haien ingurumen-sentikortasun berezia kontuan hartuta.

Jarduketa horiek guztiak xehetasun maila nahikoarekin definitu beharko dira, proiektua gauzatzeko ingurumenean zer ondorio izan ditzakeen kalkulatzeko eta prebentzio- eta zuzenketa-neurri egokiak diseinatu ahal izateko, eta, horrela, bermatzeko hautemandako ingurumen-inpaktuak modu eraginkorrean murriztu, desagerrarazi edo konpentsatuko direla.

Aurrekoa kontuan hartuz, eta ebaluatzen ari den proiektuaren ezaugarriak ikusita, bestek beste, honako alderdiak xehetasunez azaldu beharko dira:

- Proiektuaren eraginpeko eremuaren kokalekua eta mugaketa.
- Honako alderdi hauen deskribapen xehatua:
  - . Trazadura: Oinplanoa eta zeharkako eta luzerako profilak.
  - . Plataforma, fabrika-obrak eta aurreikusitako egiturak (sektio-ereduak).
  - . Hondeaketa-kotak.
  - . Geltokien, geralekuen eta horien sarbideen kokapena eta diseinua.
  - . Instalazio erantsiak edo osagarriak ustiapen-fasean.
- Lurzoruaren guztizko azalera-premiak, bai obra-fasean (makineria-parkeak, aldi baterako sarbideak, instalazio osagarriak, lehengaien pilaketa) bai ustiapen-fasean. Proiektuaren eraginpeko eremuan eta haren ingurune hurbilean dauden zonarik sentikorrenak ez dira egokitzat joko instalazio lagungarriak kokatzeko.
- Obretan okupatu beharreko zonen deskribapena eta haien egokitzapenaren ezaugarriak.
- Zerbitzuen hornidura: ingurunean eragina duten jarduketan deskribapena, zerbitzu-sareak instalatu edo birjartzetik eratorriko lirakeenak.
- Ingurumenerako, osasunerako eta ondasun materialetarako arriskutsuak diren jarduketak egoteko aukera zehaztea.
- Lur-mugimendua. Kuantifikazioa eta balantzea. Sortutako hondeaketa-soberakinen kudeaketa eta helmuga. Mailegu-materialen premiak, hala badagokio, haien kuantifikazioa, ezaugarriak eta jatorria.
- Obretako isurketen zenbatespena (hondakin-urak): izaera eta aurreikusitako kantitateak.
- Obra-fasean sortutako hondakinen zenbatespena eta haien helmuga. Hondakinen prebentziorako, bereizketarako eta biltegitartzeko aurreikusitako neurriak, bai eta hondakinak berrerabiltzeko, balioztatzeko edo ezabatzeko aurreikusitakoak ere.
- Lurzorua kutsa dezaketen jarduerak izan dituzten lurzatiei eraginez gero, horietan aurreikusitako esku-hartze mota zehaztuko da.



- Partikula-emisio atmosferikoak obra-fasean. Zehaztu beharko dira jarduketatan eta fasetan gerta daitezkeen partikula-materialen emisio atmosferiko esanguratsuak.
- Obra-fasearen tasun akustikoak. Zarata eta bibrazio maila adierazgarriak eragin ditzaketen ekintzak, proiektu-faseak edo makinak identifikatuko dira, dagokien azterketa akustikoan kontuan hartzeko.
- Obra-plana. Obra gauzatzeko epea. Jarduketaren iraupen zenbatetsia. Eraikuntza-sistemaren deskribapena; hala badagokio, aurreikusitako faseak, prozesuak edo sekuentziak xehatuko dira.
- Zaratak eta bibrazioak igortzen dituzten foku nagusiak identifikatzea eta kuantifikatzea funtzionamendu-fasean, dagokion inpaktu akustikoaren azterketan kontuan hartzeko.

Apartatu honetako informazioarekin batera, edukiak hobeto ulertzeko beharrezkoak diren proiektuaren eskalako planoak emango dira. Proiektuaren ezaugarriei buruzko bestelako informazio grafiko baten kaltetan izan gabe, ondorengo planoak aurkeztu beharko dira:

- Egin behar diren jarduketaren oinplanoko planoak. Luzetarako profila, zeharkako profilak, sekzio-ereduak.
- Jarduketaren eraginpean dauden zerbitzuak eta haien berrezarpena.
- Obrako instalazio lagungarriak eta haietarako sarbideak: Instalazio osagarrien kokaleku gisa baztertu behar diren zona sentikorrek kokatzea.
- Soberakinen deposituak eta, hala badagokie, haiekin lotutako azpiegiturak kokatzeko alternatibak. (E: 1:5.000).
- Neurri zuzentzaileak.

Berriaz definituko dira ingurumen-inpaktuak sor ditzaketen proiektuko ekintzak, eta, bereziki, arestian aipatutakoak.

## 2.2. Aztertutako beste aukera batzuen azalpena eta hobetsi den aukeraren justifikazioa

Ingurumen-inpaktuaren azterlanak barne hartu behar du ingurumenerako egokien diren aukera teknikoki bideragarrien azterketa, eta horien konparaziozko balorazioa egin behar du, zero aukera edo ez jardutekoa barne. Proposatutako soluzioa justifikatu beharko da, eta jarduketaren dimentsioari eta hedadurari ez ezik, aipamena egin beharko die dauden soluzio tekniko guztiei ere. Kasu honetan, aukeren azterketak hauek hartu beharko ditu kontuan: aztertutako trazadurak, aurreikusitako geltokien kokalekuak eta azpiegitura berria eraikitzeko aukera tekniko posibleak, ingurumenean eragin txikiagoa dakartenak.

Aukerarik onena hautatzeko, askotariko irizpideak jasotzen dituen azterketa global bat egingo da, alderdi ekonomikoak ez ezik gizarte- eta ingurumen-alorrak ere aintzat hartuta.

Zenbait aukera aztertu beharko dira deposituaren hondeaketan sortutako lur-soberakinak kudeatzeko. Ahal izanez gero, kanpotik lurrak behar dituzten obretan erabiliko dira, edo inguruko betelanean. Lur-soberakinak kudeatzeko soberakin-depositu berriak behar izanez gero, horiek kokatzeko alternatiben azterketa bat eta aukeratutako alternatibaren justifikazioa egin beharko dira.

Gainera, zenbait irtenbide tekniko planteatu behar dira zaratek eta bibrazioek eragindako kalteak minimizatzeko, bai obra-fasean, bai azpiegituraren funtzionamenduan.

Apartatua bukatzeko, hautatutako aukera argudiatu beharko da, eta bermatu beharko da hautatutako aukera hori teknikoki eta ingurumenari dagokionez bideragarria dela; era berean, ingurumenaren osagaiei ahalik eta gutxien eragiteko ahalegina egin beharko da.

### 2.3. Ingurumen-inbentarioa eta interakzio ekologiko garrantzitsuenen deskribapena

Apartatu honetan, ingurua deskribatu beharko da, arreta berezia jarrita elementu baliotsuetan eta proiektuko ekintzen eragin handiena jaso dezaketenetan. Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legeak xedatzen duenarekin bat etorriz, proiektua egin aurretik lekuaren egoera eta ingurumen-kondizioak aztertuko dituen txostena ere izan behar du, baita oraingo ingurumen-egoera eta ebaluatzen den proiektutik eratorritako jarduketaren ondoriozko egoera konparatzeko azterketa bat ere.

Ingurumen-inbentarioa apartatuz apartatu balioztatuko da. Balorazio horretan, elementuen garrantzi erlatiboa aztertuko da erreferentzia esparru baten barnean (tokiko mailan, eskualdekoan eta abar).

Kasu guztietan, datuak eskuratzeko iturri dokumentalak adieraziko dira, material bibliografikoak izan, norberak prestatuak edo bestelakoak.

Orokorrean, ingurumen-inbentarioaren azalpena modu laburrean egingo da, alde batera utzita ingurumen-inpaktuari buruzko ebaluazioan ekarpenik egiten ez duten azalpen orokorrak, ahal den neurrian proiektuak ingurumenean zer-nolako eragina izan dezakeen ulertzeko.

Ezertan eragotzi gabe aurretik esandakoa, proiektuaren eraginpean dagoen eremuaren ezaugarriak ikusita, ingurumen-inbentarioak honako alderdi hauek hartuko ditu barne:

- Azterlanaren xede den eremuaren deskribapen orokorra
  - . Mugaketa fisikoa.
  - . Lurzoruaren erabilerak.
- Geologia eta geomorfologia
  - . Proiektuaren eraginpeko eremuaren ezaugarri geologiko eta geomorfologikoak. Baldintzatzaile geoteknikoak. Interes geologiko/geomorfologikoa duten gunee, eremu eta ibilbideak identifikatzea.
- Lurrazaleko eta lurpeko hidrologia
  - . Sare hidrografikoa proiektuaren eraginpeko eremuan. Proiektuaren eraginpean egon litezkeen arroaren eta ur-ibilguen deskribapena.
  - . Proiektuaren eremuko ezaugarri hidrogeologikoak. Interes hidrogeologikoko zonak
  - . Substratuaren material litologikoen iragazkortasuna. Akuiferoen urrakortasuna.
  - . Uren kalitatea.
  - . Ur-guneen inbentarioa, gunee horien erabilera zein den adieraziz.
- Eremuan dauden biozenosien eta ekosistemen deskribapena. Kasu horretan, trenbide-linea berriaren trazadura ez ezik, hari atxikitako azpiegitura osagarri guztien kokapena ere hartuko da kontuan: obra-sarbideak, soberakinen kokapena, instalazio osagarrien kokapena eta abar.

Hala badagokio, proiektuak eragindako landaretza-azalera eta eragindako zuhaitzen ezaugarriak zehaztuko dira (espeziea, tamaina, aleen heldutasuna eta abar).



- Arriskuak
  - . Proiektuaren eraginpeko eremuan akuiferoak kutsatzeko arriskua balioetsiko da.
  - . Eremuaren egoera xehatuko da, uholde-arriskuari dagokionez.
  - . Lurzorua kutsatzeko ahalmena duten jarduerak hartu dituzten partzelak xehatuko dira. Proiektuaren ondoriozko jarduketak aipatu partzela horietako batekin bat badatoz, besteak beste, partzela horren egoera administratiboa deskribatuko da, hala nola lurzorua kalitatearen adierazpena duen edo ez.

- Paisaia

Inguruko paisaia-baliabideei dagokienez, paisaiaren kalitatearen eta hauskortasunaren azterketa egingo da.

- Ondare historikoa, artistikoa eta kulturala.

Ingurumen-inpaktuaren azterketak kontuan hartu behar du proiektuaren eraginpeko eremuan dauden ondasun kulturalen gain eragin daitekeen kaltea. Ondasun horiek identifikatzeko, kontuan hartuko dira inbentario hauek: Euskal Kultura Ondarearen Inbentario nagusia eta Arkeologia Ondarearen Inbentarioa, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailarenak biak ala biak, eta beste erakunde batzuetan dauden inbentarioak (foru-aldundiak, udalak edo beste batzuk).

- Egoera akustikoa.

Obren eta proiektuaren ustiapenaren ondorioz (zarata eta bibrazioak) kaltetu daitezkeen eraikinen (etxebizitzak, ikastetxeak, haur-eskolak, adinekoen egoitzak, osasun-zentroak, industriak, etab.) tipologia xehatuko da. Halaber, eremuak gaur egun duen egoera akustikoa baloratuko da.

- Dokumentazio grafikoa.

Jarduketa-eremuaren ingurumen-inbentarioaren alderdi garrantzitsuenen irudi kartografikoak txertatu beharko dira, hala eskala orokorrean nola xehatuan, eta kasuan-kasuan erabili den eskala adierazi beharko dute.

#### 2.4. Inpaktuen identifikazioa eta balorazioa

Inpaktuen identifikazioa, kuantifikazioa eta balorazioa ingurumen-inbentarioaren elementuen eta inpaktuak sor ditzaketen proiektuko ekintzen arteko interakzioaren ondorio dira. Eraginaren munta zenbatesteko, kontuan hartu behar dira proiektuak zuzenean nahiz zeharka eragingo dien baliabideen kalitatea eta kantitatea. Obra-faseko inpaktuak eta funtzionamendu-fasekoak bereiziko dira.

Inpaktuen identifikazio eta balorazio hori ongi arrazoitu beharko da kasu bakoitzean, eta horretarako, Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen VI. eranskinean adierazitako terminologia erabiliko da. Kasu honetan, funtsean, honako hauek konparatuko dira: egungo egoera eta etorkizuneko, neurri zuzentzaileak hartuta.

Ingurumen-inpaktuak baloratzeko erabilitako metodologiak eta balioeste-metodoak aipatuko dira. Erabilitako adierazle edo parametroak aipatuko dira, ahal den heinean oro har onartutako arauak edo azterketa teknikoak erabiliz, inpaktu mota bakoitzaren arabera muga-balioak edo gida-balioak ezartzeko.

Inpaktuak baloratzeko, proiektutik eratorritako jarduketa guztiak hartuko dira kontuan, hala nola soberakinen depositu berriak egitea (hala badagokio), soberako materialak soberakinen deposituetara eramateko trafikoa, sarbide iraunkorrak eta aldi baterakoak, instalazio lagungarriak, lurren eta materialen aldi baterako metaketak eta abar.

Bereziki, eta beste batzuei kalterik egin gabe, proiektuaren eta eragindako ingurunearen ezaugarriak kontuan hartuta, ingurumen-inpaktuaren azterketak bereziki jorratu beharko du zaratarekin, bibrazioekin eta, oro har, azpiegitura berriaren inguruan bizi diren biztanleengan sor daitezkeen eragozpenekin lotutako ingurumen-inpaktuen balorazioa, kontuan hartuta biztanleria kaltebera bil daitezkeen sentikortasun bereziko eremuak (ikastetxeak, haur-eskolak, adinekoen egoitzak, eguneko zentroak eta abar).

Zaratari dagokionez, obren eragin akustikoaren balorazioa jasoko da. Horretarako, kontuan hartu beharko dira obretako zaratari buruzko xedapen espezifikokoak, hala Zaratari buruzko azaroaren 17ko 37/2003 Legean nola Euskal Autonomia Erkidegoko hots-kutsadurari buruzko urriaren 16ko 213/2012 Dekretuan jasoak. Aintzat hartu beharko dira obrako makineriaren potentzia akustikoa, zonakatze akustikoa eta gune bakoitzean kalitate akustikoari dagokionez ezarritako helburuak.

Sei hilabete baino gehiagoko iraupena aurreikusten zaien obretan (igorle akustikoa), eragin akustikoari buruzko ikerketa bat egin beharko da, egoki diren neurri zuzentzaileak zehazteko. Inpaktu akustikoaren azterketan zuzenketa-neurriak zehaztuko dira, eta hor aztertuko da zer onura akustiko lortu nahi den zuzenketa-neurri horien bitartez, eremu akustikoetako eta eraikin sentikorretako zarata maila murrizteari dagokionez.

Ingurumen-inpaktuaren azterketak, halaber, zarataren eta bibrazioen azterketa bat izango du funtzionamendu-faserako, tren-azpiegiturei aplikatu beharreko zarataren arloko xedapen espezifikokoak kontuan hartuta.

Azterketa biak egiteko erreferentziazko metodologia arau hauek ezarriko dute: 1513/2005 Errege Dekretua, abenduaren 16koa, zaratari buruzko 37/2003 Legea, azaroaren 17koa, garatzen duena, ingurumenaren zarataren ebaluazioari eta kudeaketari dagokionez; eta 213/2012 Dekretua, urriaren 16koa, EAEko Hots-kutsadurari buruzkoa.

Azterketa bien emaitzak eremuko hots-kutsadura mailen balorazioa egiteko aukera emango du, eta kalteak grafikoki adieraziko dituzten mapak izango ditu.

Era berean, ingurumen-inpaktuaren azterketak hauek ere hartu beharko ditu aintzat: lurzoruaren okupazioarekin lotutako ingurumen-inpaktuen balorazioa, eta nolako ondorioak izan daitezkeen natura-baliabideetan, baliabide hidrogeologikoei eta lurpeko urei eragin dakiekeen neurrian. Baliabide estetiko-kulturalei dagokienez, azpiegitura hiri-paisaian sartzearen ondorioak baloratuko dira (geltokiak, geralekuak eta lurrazaleko beste instalazio batzuk, hala badagokio) eta ondare historiko-arkitektonikoan eta arkeologikoan izan dezakeen eragina.

Arriskuei dagokienez, trazadura baldintzatu dezaketen arrisku geoteknikoak baloratuko dira, bai eta ingurumenaren ikuspegitik duten eragina ere, azpiegiturak zeharkatuko dituen materialen eraikuntza-kondizioen arabera eta kontuan hartuta trazadura populazio handiko hiri-eremu batetik igarotzen dela. Era berean, kontuan hartuko dira lurzorua kutsa dezaketen jarduerak izan dituzten lurzatiei eragitearen ondoriozko arriskuak.

Proiektuak bere osoan klima-aldaketan izan dezakeen eragina baloratu beharko da, eta kontuan hartuko da proiektuak zer eragin izan dezakeen giza osasunean eta lasaitasun publikoko kondizioen gainean. Ildo horretan, hots-kutsadurak, bibrazioek eta hondakin, isuri zein emisioen kudeaketa egokiak eragin ditzakeen inpaktuak baloratuko dira, lanek iraun bitarteko epea zein ustiapen-fasea kontuan hartuta.

## 2.5. Proiektuaren kaltegarritasuna

Istripu larri edo hondamendi adierazgarriren bat gertatzeko arriskuarekiko kaltebera izatearen ondorioz proiektuak ingurumenean sor ditzakeen kalte adierazgarrien deskribapena, azterketa eta, hala badagokio, kuantifikazioa egingo da, baita istripu edo hondamendi horiek gertatzeko arriskuarena ere. Helburu hori lortze aldera, proiektuari aplikatu beharreko beste arau batzuei jarraituz egindako arrisku-ebaluazioen bitartez lortutako informazioa erabili ahal izango da.

Hala badagokio, deskribapenak barne hartuko ditu horrelako gertakariak ingurumenean sor dezaketen kalte adierazgarriak prebenitzeko eta leuntzeko aurreikusitako neurri guztiak, baita halako larrialdietarako proposatzen diren prestakuntzari eta erantzunari buruzko xehetasunak ere.

Apartatu hau proiektuari aplikatu behar ez zaiola iriztekotan, justifikazio-txostena sartuko da.

## 2.6. Prebenitzeko, zuzentzeko eta konpentsatzeko neurriak proposatzea

Ingurumen-inpaktuaren azterketak ingurumen-eragin kaltegarri nagusiak murrizteko, desagerrarazteko edo konpentsatzeko proposatutako neurriak azalduko ditu inguruneko elementu bakoitzerako. Espero diren inpaktuen ezaugarrien arabera proposatu eta dimentsionatuko dira neurri zuzentzaile horiek.

Inpaktuak prebenitzeko eta zuzentzeko pentsatutako ekintza bakoitza xehetasunez identifikatu eta deskribatuko da, bai ekintzaren diseinu eta kokapenari dagokionez, baita kutsaduraren aurkako prozedurei, arazketari eta ingurumenaren babes generikoari dagokionez. Deskribapenak xehetasun maila nahikoa izan beharko du hautemandako ingurumen-inpaktuak modu eraginkorrean murriztu, desagerrarazi edo konpentsatzen direla bermatzeko, exekuzio-proiektuek izan ohi dituzten apartatuak barne hartuta: memoria, neurketen koadroa, obra-unitateen definizioa, aurreikusitako neurri bakoitzari dagokion aurrekontuko partida eta preskripzio teknikoaren agiria, bai eta hori guztia hobe ulertzeko behar den kartografia ere. Neurri horiek obraren planean integratuko dira, eta neurriak gauzatzeko egutegi koordinatu bat proposatuko da.

Zehazki, eta aurreko apartatuetan eskatutako analisisien emaitzen ondorioz sartu behar diren beste neurri batzuk gorabehera, neurri prebentibo, babesle eta zuzentzaileen proiektuak neurri hauek hartu eta garatuko ditu, beste batzuen artean:

- Landaredia babestera zuzendutako neurriak. Oro har, zuhaitzen eta berdeguneen gaineko eragina minimizatu behar da. Zuhaitzak eta mantendu behar diren gainerako elementuak seinalatu eta babestuko dira, haien kontserbazioa bermatu ahal izateko.
- Obra-fasean eta trenbidearen funtzionamendu-fasean sistema hidrologikoa eta hidrogeologikoa babesteko neurriak. Irizpide orokor gisa, eraikuntza-prozesuan lurpeko uren kalitatean eraginik ez izatea bermatu beharko da. Era berean, ustiapen-faserako, lurzorua eta urak ez kutsatzeko hartu beharreko neurriak zehaztuko dira, hala nola hondakin-urak tratatzeko guneen iragazgaiztea eta egon daitezkeen istripuzko isuriak eta ihesak biltzeko sistema.
- Kontuan hartuko dira, halaber, iragazgaiztu gabeko akuiferoen kutsadurarekiko urrakortasun handiko zonei eragitea saihesteko neurriak. Ildo horretan, pilaketa-eremuak, eremu osagarriak eta makineria-parkeak kokatzearen eta behar bezala egokitzearen garrantzia azpimarratu behar da (iragazgaiztea, drainatzea eta abar).
- Obra-faseko hondakinen kudeaketara zuzendutako neurriak. Bilketa-, biltegitratze- eta tratamendu-sistemen deskribapena.
- Babes- eta kudeaketa-neurriak, lurzorua kutsa dezaketen jarduerak izan dituzten lurzoruzonatan lanak eginez gero. Lurzorua kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzeko ekainaren 25eko 4/2015 Legeak xedatutakoaren arabera, lurzoru kutsatuen alorrean aplikatzekoak diren betebeharrak betetzea.
- Ondare historiko-arkitektonikoa eta arkeologikoa babestera zuzendutako neurriak. Kontuan hartuko da, ikusizko intrusioaren ikuspegitik, kultura-ondareko elementuen presentzia trenbidearen kanpoko elementuak kokatzeko orduan. Hala badagokio, azterlan arkeologikoak idaztea proposatuko da. Bestalde, obra-fasean aztarna arkeologikoren bat agertzen bada, berehala geldiaraziko da obra, eta Foru Aldundiko Kultura Sailari edo Bilboko Udalari abisatuko zaio, Euskal Kultura Ondarearen 6/2019 Legearen 74. artikuluan adierazten denez.
- Zerbitzu edo baliabide publikoen gaineko inpaktua minimizatu edo konpentsatzeko neurriak, bereziki aire zabaleko aisiarekin lotutakoei dagokienez (parkeak, atsedenlekuak, bidegorri-sarea eta abar).
- Lanek iraun bitartean zein trenbidearen funtzionamendu-aldian zarata eta bibrazioen emisioak minimizatzeko neurriak, aurretik adierazi diren hots-kutsadurari buruzko azterketetatik eratorritakoak. Horien bidez lortu nahi diren ondorioak ere adierazi behar dira.
- Trenbideari atxikitako azpiegiturak hiri-ingurunean integratzeko neurriak.
- Lurrazalean eragina duten obrak lehengoratzeko eta paisaian integratzeko neurri zuzentzaileak, eremu lagungarriak barne (materialak biltegitratzeko eremuak, soberakinen deposituak, behin-behineko eta behin betiko sarbideak eta abar).

## 2.7. Ingurumena zaintzeko programa

Ingurumena zaintzeko programa bat eratuko da. Programa horren helburu nagusia izango da sistema bat ezartzea, hauek betetzen direla bermatzeko: ingurumen-inpaktuaren azterketan finkatutako kalitate-helburuak eta bertan adierazitako jarraibideak eta neurri zuzentzaileak.

Programaren helburuak zehaztuko dira eta, helburu bakoitzarentzat, jaso beharreko datuak, erabili beharreko metodologia, neurketa-puntuak (puntu horiek zehazki kokatzeko planoa eta krokisa barne) eta neurketen maiztasuna adieraziko dira.

Kalitate-balioak hauen arabera definituko dira, hala dagokionean: legediak zehazten dituen muga- edo gida-balio-giden arabera, edota oro har onartutako azterketa teknikoan arabera. Hala ere, proiektuak eragindako eremuaren xehetasun eta ezaugarriek hala eskatzen badute, balio zorrotzagoak ezarri beharko dira beharrezkoa irizten zaien parametroetan.

Era berean, dagokion aurrekontua gehitu beharko da, behar bezainbat banakatuta, proiektuaren garapenetik eratorritako eragin jarraipen egokia egin ahal izateko.

Proiektuari buruz eta proiektuak inguruan duen eraginari buruz jasotako datuen ondorioz beharrezkoak diren kontrolak gain, programa horrek jarraian adierazitako kontrolak izan beharko ditu:

- Obrak okupatzen dituen mugak kontrolatzea.
- Obrako jardunbide egokiak kontrolatzea, hauek saihesteko: hondakin-isurketak, lurzorua edo uren kutsadura, olio-jarioen, zementu-esneen eta lur-mugimenduen ondorioz, eta biztanleei eragozpenak sortzea, zarataren, hautsaren eta abarren ondorioz.
- Hala dagokionean, hondeaketa kontrolatzea kutsatuta egon daitezkeen lurzoruetan.
- Landarediaren gaineko eraginak kontrolatzea.
- Ur-ibilguen eta uren kalitatearen gaineko eraginak kontrolatzea.
- Zarata eta bibrazioak kontrolatzea obra-faseetan. Euskal Autonomia Erkidegoko kutsadura akustikoari buruzko urriaren 16ko 213/2012 Dekretuan ezarritako prozedurak erabiliz diseinatu eta gauzatuko dira kontrol horiek.
- Obretako hondakinen kudeaketa kontrolatzea, bereziki, eta hala dagokionean, lur-mugimenduetan azaleratu direnetan, lur horietan lurzorua kutsatu dezaketen jarduerak gauzatu badira iraganean.
- Obren kontrol arkeologikoa.
- Obren eraginpeko zona guztietan lehengoratzeko lanak eta horien arrakasta kontrolatzea.
- Aurreikusitako neurri prebentibo, zuzentzaile eta konpentsatzaileen efikazia egiaztatzeko beste kontrol batzuk.

Funtzionamendu-fasean, honako alderdi hauek kontrolatu beharko dira, besteak beste: jarduerak sortutako zarata eta bibrazioak, hondakin-uren, hondakinen eta emisioen kudeaketa eta landareztatze-lanen emaitza.

## 2.8. Ingurumen-inpaktuaren azterketaren laburpena

Ingurumen-inpaktuaren azterketaren eta haren ondorioen laburpen-dokumentu bat idatzi beharko da, 21/2013 Legeak, abenduaren 9koak, VI. eranskinean ezarritako ezaugarriekin. Dokumentuan labor-labor eta jendeak ulertzeko moduan jaso beharko dira proiektuaren izaerari buruzko informazioa, proiektuak inguruneari eragiten dion modua, eta aurreikusitako inpaktuak saihesteko eta/edo minimizatze proposatutako neurriak. Halaber, dokumentazio grafikoa sartzea ere gomendatzen da, jendeari informazioa emateko.

Hala badagokio, ingurumen-inpaktuaren azterketa egitean aurkituko zailtasun tekniko edo informatiboak aipatu beharko dira.

## 3. Dokumentazioa aurkezteko jarraibideak

Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 39.3 artikuluan aurreikusitakoaren arabera, egiaztapen batzuk egin ondoren, organo substantiboak ingurumen-organuari bidaliko dio ingurumen-inpaktuaren ebaluazio arrunta abiarazteko eskaera eta harekin batera aurkeztu beharreko dokumentuak, hala nola proiektuaren dokumentu teknikoak,

ingurumen-inpaktuaren azterketa, informazio publikoaren eta kontsulten emaitza, eta sustatzaileak egindako oharren dokumentu bat, jasotako alegazio eta txostenetako ingurumen-edukiari eta kontuan hartzeko moduari dagokionez.

Ingurumen-inpaktuaren adierazpena eskatzeko eta dokumentazioa entregatzeko, nahitaez bete beharko dira Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren webgunean horri buruz dauden jarraibideak, esteka honetan jasotzen direnak:

<https://www.euskadi.eus/informazioa/proiektuen-ingurumen-inpaktuaren-banakako-ebaluazio-prozedura-izapidetzea/web01-a2inginp/eu/>

Eskabidearekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioa gidaliburuaren arabera egin eta aurkeztu beharko da. Gidaliburua ingurumen-organoaren webgunean dago eskuragarri, esteka honetan:

[https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/eia/eu\\_def/adjuntos/Dokumentuak-aurkezteko-GIDA.pdf](https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/eia/eu_def/adjuntos/Dokumentuak-aurkezteko-GIDA.pdf)

Bigarrena. – Ingurumen-inpaktuaren azterketaren irismeneko dokumentuak bi urteko epean izango du balioa, hura sustatzaileari jakinarazi eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita. Dokumentuak balioa galduko du epe hori igaro eta organo substantiboari ingurumen-inpaktuaren azterketa aurkeztu ez bazaio ingurumen-inpaktuaren ebaluazio arruntaren prozedura hasteko.

Hirugarrena. – Ebazpen honen edukia Eusko Jaurlaritzako Garraio Azpiegituren Zuzendaritzari komunikatzea.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko abuztuaren 2a.

Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularren zuzendaria.

Javier Agirre Orcajo.

(Elektronikoki sinatua)